



ZABALKETA 01 koadernoak:

Testuinguruaren analisia eta uraren arazoa

Ura eta saneamendua eskuragarri izatea giza eskubidetzat jotzen du Nazio Batuen Erakundeak. Eskubide hori beste eskubide batzuk gauzatzeko ezinbestekoa da, adibidez osasunerako, elikadurarako, etxebizitzarako eta hezkuntzarako eskubideak. Hala eta guztiz ere, gaur egun, munduko leku askotan, eskubide hau oraindik ez da betetzen.

Bizkaiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek, esaterako, Asociación Zabalketa, giza eskubide hori ezagutzeko, aldezteko, sustatzeko eta benetan betetzeko proiektuak egiten dituzte, tokian tokiko lekuetan nahiz mundu zabalean.

Bolivia da gutxien garatuta dagoen Hego Amerikako bigarren herrialdea, nahiz eta herrialdea aberatsa izan baliabide naturaletan eta ekoizpen baliabideetan. Lehengaiak, hala nola petrolioia, gasa eta mineralak, beste herrialde batzuei saltzen zaizkie, eta nazioarteko merkatuan prezioak oso aldakorak direnez, ustelkeria dagoenez eta estatua gaizki kudeatuta dagoenez, lorturiko irabaziak nekez bihurtzen dira herritar txiroenentzako onura.

Azken urteotan, Boliviako estatuak garapen programak eraman ditu aurrera; horiei esker, nolabait hobetu dira pertsona askoren bizi-baldintzak eta aurrerapen handiak egin dira legedian genero-arrakala murrizteko. Nolanahi ere, hiri handietatik urrun dauden landa-eremuetan, biztanleriaren premiek eta haien gizarte eta ekonomia garapenerako mugek kezkarriak izaten jarraitzen dute.

Santa Cruz departamenduaren hego ekialdean, Boliviako Andeen mendikateko inguruetan dago **Valles Cruceños** eskualdea. Eremu horretan, 75.000 pertsona inguru bizi dira, eta 30-50 familia inguruko nekazari komunitateetan multzokatzen dira. Komunitateak elkarrengandik urrun daude, eta zailtasunak dituzte errepidez komunikatzeko, salgaiak garraiatzeko edo larrialdi kasuan laguntza jasotzeko. Hain zuzen, komunitateen arteko bideak asfaltatu gabe egon ohi dira, eta erliebe gorabeheratsua eta mendien malda handiak direla eta, euriteen garaian luiziak gertatzen dira eta bideak blokeatzen dituzte.

Testuinguru soziopolitikoa

Valles eskualdeko etxe gehienak **ez dira iristen gutxieneko ongizate mailetara**, etxebizitza kalitatearekin, ur edangarria eta saneamendua eskuratzearekin, elektrizitate hornidurarekin eta osasun eta hezkuntza zerbitzuak eskuratzearekin lotuta.

Valles eskualdeko familiak adobezko (buztina eta lastoa nahastuz eginiko adreiluak) eta lastozko eraikuntzetan bizi dira. **Biztanleria helduaren artean analfabetismo** maila **altua** da (gizonen % 15ek eta emakumeen %27k ez dakite irakurtzen eta idazten), eta komunitate gutxitan daude bigarren mailako hezkuntza zentroak.

Mediku zentroa komunitate handienetan soilik dago (500 familia edo gehiago dituztenetan); gainerakoetan, aldiz, oinarriko botika



Valles Cruceños eskualdearen kokapena, Andeak mendikatearen inguruetan



Valles Cruceños eskualdeko familia bat

zoak lantzeko, guztien artean gizarte eta ekoizpen garapeneko proposamenak egite aldera. OLE bakoitzak zuzendaritza bat izendatzen du eta horrek jardun behar du komunitatearen eta tokiko gobernuaren arteko bitartekari gisa, eskaerak eta proposamenak helarazteko eta udal aurrekontuko funtsak eskuratu ahal izateko. Gainera, gai zehatzagoekin lotutako beste erakunde batzuk ere badaude; hala nola, **Ura Administrazio Erakunde (UAE)**. Azken hori da komunitate bakoitzak duen uraren eskuratzea, erabilera eta banaketa kudeatzeaz arduratzen dena. OLEk bezala, erakunde honek ere zuzendaritza batzorde bat dauka, bozketaz hautatua. Praktikan, zuzendaritza hori ez da gai zuzen kudeatzeko lurraldeko iturburuak eta ur iturriak, ezta biztanleriari ura zuzen, eraginkortasunez eta etengabe banatuko zaiola bermatzeko ere. Izan ere, ez dituzte ezagutza tekniko nahikoak eta ez dago kudeaketa tresna nahikorik (estatutuak eta araudiak, plan eragileak...). Era berean, ez dute daturik isurialdeetako uraren kantitateari eta kalitateari buruz, uraren ahalari eta erabili ahal duten mailari buruz. Hain zuzen, alderdi horiek beharrezkoak dira plangintza eta aprobetxamendu iraunkorra diseinatzeko. Azken finean, OLEak eta UAEak ez dira oso eragileak eta eraginkorrak beren lanean.

Valles Cruceños eskualdeko gizartearen beste ahultasun handi bat da **emakumeen marjinazioa**, dela familia mailan, dela komunitate eta udal mailan. Emakumeen hezkuntza maila baxuagoa da gizonen dutenarekin alderatuta, eta etxea eta seme-alabak zaintzen jardun ohi dira, baztertuta. Landako lanetan parte hartzen dute, baina gizonen maneiatzen dituzte irabazkiak eta hartzen dituzte erabakiak familiako ekonomiari buruz. Komunitateko biltzarretan emakumeek duten parte hartzea entzutera mugatzen da, haien iritziak nekez baloratzen baitira. Bozketetan, gizonen botoak kontatzen du, etxeko burutzat hartzen baita, eta, beraz, familia osoaren ordezkaritza.



Valles Cruceños eskualdeko erliebe menditsua

kutxa bat dute soilik, eta osasun arreta gobernuaren aldezkatu kanpainetara murrizten da. Biztanleriaren artean haurren desnutrizioa altua da (% 29 ingurukoa); elikadura dieta urria baita eta patata, arroz eta artora murrizten baita funtsean.

Estatu zentralaren eskutik eremu horrek jasaten duen abandonua eta deskonexioaren erakusgarri da 2009an biztanleriaren % 23k ez zuela baliozko identitate agiri bat; horren ondorioz, ezin zituzten beren eskubide politikoak baliatu, oinarriko zerbitzuak eskatu, tokiko (udala), eskualdeko, estatuko eta abarretarako gobernu aukeratzeko hauteskundeetan parte hartu, etab.


Antolakuntza mailan, nekazarien komunitate bakoitza **Oinarrizko Lurralde Erakunde (OLE)** batek ordezkatzen du. Horrek familia guztiak deitzen ditu komunitateko ara-

Ingurumen testuingurua eta uraren eta sa-neamenduaren arazoa

Valles Cruceños eskualdeko klima epela da. Ia 9 hileko urtaro lehor bat du eta 3 hileko beste heze bat. Azken horretan biltzen dira urte osoko euriteen % 80 ia-ia. Valles Cruceños eskualdean, urteko plubiometria 650 mm ingurukoa da (Bilbon baino askoz ere txikiagoa; Bilbon 1.100 mm gainditu ohi dira). Klima aldaketaren ondorioz, urtaro lehorren iraupena areagotzeko eta hezea murrizteko joera dagoela ikusi da. Euriteen eskasiak, batetik, pertsonen osasunari eta ongizateari eragiten dio, kontsumorako eta norberaren garbitasunerako ura eskuratzeko aukera

txikiagoa delako, eta, bestetik, ganaduaren eta laborantza lurrei eragiten die, erregadorako ur gutxiago izatearen ondorioz.

Eremu horretako uraren arazoa ondo ulertzeko, **mikroarro hidrografikoaren dinamika** ulertu behar da oro har. Valles Cruceños eskualdeko nekazarien komunitateen zentro populatuak haranaren behealdean daude, eta goialdean daude, ostera, iturburuak eta larre naturalak. Malda gutxi duten mendi magalen behealdeak nekazaritzarako erabiltzen dira. Euria egiten duenean, uraren zati bat lurrean infiltratzen da, zorupeko akuiferoak betetz eta iturburuak eta errekaetako elikatuz. Beste zati bat, ordea, gainazaleko isurketa bidez jaisten da haranaren behealderaino, eta bidean lurrak higatzen ditu eta ia ezin da aprobetxatu. Biztanleak eta ganadua hornitzeko eta laborantza lurrak erregadiatzeko, iturburuetako eta errekaetako ura erabiltzen da. Horra hor zergatik den garrantzitsua zorupean uraren infiltrazioa mesedetzea, iturburuak emari ona dutela bermatzeko. Horrenbestez, lurra trinkotzen eta higatzen duten praktikak saihestu behar dira, hala nola larretan animalia gehiegirekin artzaintzan aritzea, deforestazioa eta landan uztondoak erretzea.



Valles Cruceños eskualdeko mikroarro hidrografiko baten marrazki

Ur eskasiak biztanleen egunerokoa baldintzatzen du, baina bereziki emakumeena. Valles eskualdeko komunitateetan ohikoa da emakumeek etxea zaintzeko eta garbitzeko eta janaria prestatzeko rol tradizionalak betetzea; hortaz, emakumeak arduratzen dira ura eramateaz egunero ur iturrietatik (iturburuak edo errekek) etxebizitzetara, bidoiak erabiliz edo astoak baliatuz. Errekara joaten dira, baita ere, arropa garbitzera.

Eskuragarri dagoen ur kantitatea ez ezik, uraren **kalitateak** ere kezkatzen ditu Valles eskualdeko biztanleak. Animaliak iturburuetara askatasunez sar daitezke eta etxebizitzetan ez dago saneamendurik. Horren ondorioz, kontsumo uretan kutsatzaile fekalak agertzen dira. **Komunak** erabiltzea oso mugatuta dago, etxebizitza gutxi batzuetara, eta ohikoa da eginkariak kanpoan egitea. Horrek eragin larria du herrixken inguruetan, giza eta animalien irazkinez kutsatzen baitira. Zaborrak oro har lurperatu egiten dira, erre egiten dira edo abandonatuta uzten dira, sinpleki. Horren guztiaren laguntzaz, ingurumen kutsadurako guneak sortzen dira eta intsektuak eta karraskariak ugaritzen dira; horiek, gaixotasunak transmititzen dituzte.

Biztanleak gutxinaka-gutxinaka jabetzen doazen arren bere ongizaterako eta etorkizuneko belaunaldietarako **ingurumen osasuntsua eta zaindua** izatearen garrantziaz eta onurez, **garrantzia gutxiko gaia** dela uste da oraindik, eta agintarien eskutik ez dago benetako konpromisorik pertsonen inguruarekin duten jokabidea arautzeko araurik egiteko.



Emakumeak ibaian arropa garbitzen

Testuinguru ekonomikoa

Nekazaritza eta abeltzaintza, familiako ekoizpen unitate txikietan oinarrituak, dira Valles eskualdeko familientzako diru sarrerak sortzen dituzten jarduera nagusiak. Nekazaritza eta abeltzaintza modu tradizionalen gauzatzen dira, ia makinarik gabe. Laborantza nagusiak patata eta artoa dira, eta hein txikiagoan, barazkiak eta frutak.



Ganadua bazkatzen



Komunitateko bilera

Nekazaritza **lehorrekoa** da batik bat, eta urteko ekoizpena du. Euriak eman-dako uraren menpe dago funtsean. Zenbait familiak lurtean ur gordailuak (1.000 metro kubiko ingurukoak) hondeatu dituzte, eta horri esker, urtean hainbat uztaz izaten dituzte. Nolanahi ere, **uraren erabilera nekez da eraginkorra**, iturburuetatik ura bideratzeko kanal irekiak erabiltzen dituzte normalean, eta, horren ondorioz, galerak baitituzte filtrazioengatik eta lurruntzeengatik, eta, uholdearen bitartez laborantza lurak ureztatzen dituzte, ur asko alferrik galduz.

Biztanleak praktika modernoago batzuk txertatzen ahalegindu diren arren, ezagutza tekniko mugatuak dituztenez, ez dituzte zuzen gauzatzen. Adibidez, gehiegizko ongariak, pestizidak, herbizidak erabiltzen dituzte (agrokimikari-enpresen marketin kanpaina erakargarriengatik), ez dute laborantzak txandakatzeko egutegi egokia erabiltzen eta ez dituzte lugorrialdiak errespetatzen, besteak beste.

Gainera, ganadu ekoizpena modu tradizionalen egiten da, ezagutza tekniko eskasekin. Familia bakoitzak animalia gutxi batzuk dituzte; azkenok aske bazkatzten dute komunitatearen erabilerarako larre naturaletan eta iturburuetan edaten dute. Normalean, animalia asko pilatzen dira lursail txiki batean, hau da, **animaliaren zamak gainditu egiten du larrearen gaitasuna**, eta, horren ondorioz, lurra trinkotzen joaten da eta bazka gero eta ahulago hazten da.

Lortutako nekazaritza eta abere produktuak tokiko azokan saltzen dira, familiako eskaerak asebate ondoren. Produktuak kamioiez garraiatzeak kostu esanguratsua du, eta merkatuan lehia indartsua aurkitzen dute; hortaz, irabazi marjina

asko estutu behar izaten dute. Azkenean lortzen duten irabazi txikia prozesatutako beste elikagai batzuk erosteko baliatzen dute (azukrea, olio, arrosa...), eta **ia ez dute gaitasunik aurrezteko edo irabaziak beren ekoizpena hobetzean inbertitzeko**.

Valles eskualdeko bizitza gogorraren eta prestakuntza eta lan aukeren gabeziaren ondorioz, gazteak Santa Cruz hirira migratzen dute. Beraz, komunitateetako biztanleria gero eta zaharragoa da eta laborantza lurak abandonatzen dira; lurrok gero eta txiroago bihurtzen dira eta pixkanaka hondatu egiten dira.

Gauzak horrela, Zabalketa GGKEak Boliviako bere bazkidearekin, Instituto de Capacitación del Oriente, lanean dihardu Valles Cruceños eskualdean, garapen eredu aldatzea sustatzeko. Garapen eredu berria uraren eta ekoizpen baliabideen kudeaketa iraunkorrago egitean oinarritzen da, biztanleen bizi baldintzak hobetzeko.

Egilea: Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo | **Argazkiak:** Zabalketa eta Instituto de Capacitación del Oriente
Kofinantziatzaia: Bizkaiko Foru Aldundia | **Diseinua eta maketazioa:** Seteseoito | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño | **Lege Gordailua:** BI-371-2016
 DHAS Bizkaiko taldearen eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz
www.forobizkaiaadhas.org / www.zabalketa.org